

Abenduak 25
JAUNAREN JAIOTZA (A)
Festaburua

GAUERDIKO MEZA

Otoitza

Egiazko argia den Kristoren jaiotzaz
argitzen duzu, Jauna, gau santu hau;
iguzu, lurrean argi honen distirak ezagutu ditugunok
zeruan Haren aintzaren ederra goza dezagula.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Is 9, 2-4. 6-7

Seme bat eman zaigu.

Isaias Profetaren liburutik

Ilunbetan zebilen herriak
argi haundi bat ikusi zuen;
herio itzalean bizi zirenak
distira batek argitu zituen.
Gehitu zenuen poza
eta haunditu, atsegina;
pozetan dabilta zure aurrean,
igitai aroan izaten den pozez,
harrapakinak banatzekoan izaten den atseginez.
Puskatu baituzu
haren uztarri astuna,
haren bizkar makila, eta zapaltzailearen zigorra,
Madiango egun hartan bezala.
Haur bat jaio baitzaigu,
seme bat eman zaigu;
aginpidea sorbaldan darama;
eta haren izena: Kontsejatzaile harrigarri,
Jaungoiko indartsu,
Betiko Aita, Bake errege.
Bere erregetza zabal dezan,
amairik gabeko bakea ezarriz,
Dabiden aulkian eta bere herrian.
Sendotu eta indartu dezan,
zintzotasunez eta zuzentasunez,
gaurdanik eta betiraino.
Diren guztien Jaunaren maite minak
egingo du hau.

ERANTZUN SALMOA: Sal 95, 1-2. 3 eta 11-12a. 12bcd-13

**R/. Salbatzaile bat jaio zaigu gaur:
Mesias, Jauna.**

Kanta Jaunari kantu berri,
kanta, lur osoa, Jaunari.
Kanta Jaunari, bedeinka Haren izena,
iragarri egunez egun, Haregandiko salbamera. R/.

Zabaldu Haren ospea atzerrietan,
Haren mirariak herri guztietan.
Poztu bedi ortzia, alaitu lurra,
orro egin beza itsasoak bertan bizi direnekin,
txalo egin beza landak bertan dauden guztiekin. R/.

Poztu bitez basoko zuhaitzak,
Jaunaren aurrean, badatorrelako,
lurra epaitzera datorrelako.
Zuzenbidez epaituko du lurbira,
eta leialtasunez herriak. R/.

II. IRAKURGAIA: Tt 2, 11-14

*Agertu zaigu Jaungoikoaren grazia,
gizon-emakume guztion salbamenerako.*

San Paulo Apostoluak Titori

Agertu zaigu Jaungoikoaren grazia, gizaki guztion salbamenerako. Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen erakusten digula; zorioneko itxaropenari begira, Jesu Kristo gure Salbatzaile eta Jaungoiko haundiaren agertze ospetsua itxaroten dugula. Hark guregatik eman zuen bere burua, gu gaiztakeria guztietatik ateratzeko eta bere herri garbi eta egintza onen zale egiteko.

EBANJELIOA: Lk 2, 1-14

Aleluia: Lk 2, 10b-11a

R/. Aleluia.

V/. Poz haundi baten berri ona dakarkizuet:
salbatzaile bat jaio zaizue gaur:
Mesias, Jauna. R/.

Salbatzaile bat jaio zaizue gaur.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Egun haietan, mundu guztiaren izenak hartzeko agindua atera zen Zesar Augustorengandik. Hau izan zen, Kirino Sirian buruzagi zelarrik egindako lehenengo izen hartze

zihoazen, bakoitza bere herrira.

Jose ere, Dabiden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galielako Nazaretetik Judeara igo zen, Belen deritzan Dabiden herrira, han bere emazte Maria haurdunarekin izen ematera.

Han zeudelarik, haurra izateko egunak bete zitzaizkion Mariari. Eta bere lehen semea izan zuen eta, oihaletan bildurik, ganbela batean etzan zuen; ez baitzen ostatuan haiantzako lekurik.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, mendian gaua igaroz, beren artaldeak txandaka zaintzen zituztenak. Honetan, Jaungoikoaren aingeru bat agertu zitzaien; Jaungoikoaren aintzak argiz inguratu zituen, eta beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez izan beldurrik; begira, poz haundi baten berri ona dakarkizuet, herri guztiarentzat izango dena: salbatzaile bat jaio zaizue gaur Dabiden herrian: Mesias, Jauna. Honetan ezagutuko duzue: oihaletan bildurik eta ganbelak etzanik aurkituko duzue haurra». Eta bat-batean aingeruari zerutar talde bat bildu zitzaion, Jaungoikoa goستن zutela, esanez: «Aintza zeruetan Jaungoikoari, eta bakea lurrean Haren gogoko gizona».

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizkizu, Jauna, gau santu honetako gure dohain hauek;
eta ospakizun honetan izango ditugun harremanen bidez,
zure Semearen antzeko egin gaitzazu,
Bera gure antzeko egin den bezala.
Errege bizi baita.

Prefazioa: Eguberrialdikoa

Jaunartze ondorengoa

Pozez gainezka ospatzen dugu, Jauna,
Kristo gure Salbatzailearen jaiotza;
emaguzu, orain santuki bizitzea,
eta egunen batean Kristorekin bat egitea.
Errege bizi baita.